

IKASTAROEN ARAUDIA:

- 1.- Izena emateko orria Kultur Etxean (Kruzeta Kalea 5), edo www.gorliz.eu "tramiteak online-beste batzuk-instantzia orokorra" atalean aurkeztu behar da.
- 2.- Epe barruan izena emandakoen kopurua plaza kopurua baino handiagoa bada, Gorlizen erroldatuta daudenen lehentasuna izango dute.
- 3.- Beharrezkoa bada zozketatuko da: 1)Gorlizen erroldatuen artean, 2) Lemoiz eta Plentzian erroldatuen artean. 3) ez erroldatuen artean. Egin ondoren inor kanpoan geratzen bada eta norbait badago plaza bat baino gehiagorekin ikastaro berberan, honek plaza bat aukeratu behar izango du.
- 4.- Kobrantzak hiruhilekoak dira, helbideratutako ordainagiri bidez. Baja adierazten ez den bitartean, ikasleak altan jarraitzen du.
- 5.- Bankuak ordain agiria itzultzen badu ikaslearen erruz, honek Udalaren k.k.-ra sartu behar du dirua hilabetearen azken eguna baino lehen (1. hamabostaldian gertatzen bada) edo hurrengo hilabetearen 15a baino lehen (2. hamabostaldian bada). Bestela, bide betearazletik joko da.
- 6.- BAJA hurrengo hiru-hilabetea hasi baino lehen jakinarazi behar da, idatziz: Kultur Etxean fitxa sinatuz, faxez edo emailaz. Horrela adierazi ezean, baja ez da kontuan hartuko. Adi hiruhilekoaren hasierako datari.
- 7.- Kobrantzak egiteko datan baja adierazita ez badago, hiruhileko osoa kobratuko da, eta inola ere ez da itzuliko, ezinbesteko arrazoiak direnean izan ezik (ikaslearen gaixotasuna, ebakuntza, istripua edo horrelako egoera larria ...). Halako kasuak agiri bitartez frogatu behar dira, eta kontuan hartuko da frogagiria zein egunetan entregatu den.
- 8.- Izen-ematea ikastaroa hasita egiten bada, lekurik izanez gero, hasteko aukera izango du eta kobratuko zaio hilabete hori osoa (1 eta 15aren artean hasiz gero) edo hilabete erdia (16 eta 31ren artean hasiz gero).
- 9.- Izena ematean plazarik ez badago, itxaron zerrendara joango da. Lekua sortuz gero, zerrendako 1.ari deituko zaio. Hilabete hori osoa (1-15a artean hasiz gero) edo erdia (16-31 artean hasiz gero) kobratuko zaio.
- 10.- Hiruhilekoaren egutegia Udalaren web orrian egongo da. Ikastaroak, hiruhileko bakoitzean, 10 edo 20 klasekoak dira, klaseak astean egun batekoak ala bikoak izatearen arabera. Jarraian 3 klase-egunetara joan ezean azalpenik eman gabe (irakasleari edo Kultur Etxean), plaza hori itxaron-zerrendan dagoen lehenarentzat izan ahal da.
- 11.- Udalak, denon interesa dela eta, beretzat gordetzen du ikastaroetan aldaketak egiteko ahalmena, eta ez du zertan konpentsaziorik edo kalte-ordainik ordaindu.
- 12.- Udalak egunean jarriko ditu 2021eko prezioak eta araudia, ordenantza fiskalen bitartez.
- 13.- Ikastaro batean izena-eman ondoren, 1. klasea eta gero, Kultur Etxeari ez badio idatziz adierazten utzi nahi duela, altan jarraituko du ikasle bezala.
- 14.- 2020-2021 ikasturtea hasteko, irailaren 28ko astean argitaratuko dira ikasleen zerrendak (padelen kasuan izan ezik), webgunean eta Kultur Etxean, horrela emango baita aditzera eskariak onartuta daudela.
- 15.- Ez dago deskonturik klase gutxiagotara joateagatik. Nahiz eta astean 2 eguneko ikastaro batean egun bakarrera baino ezin joan, ez da gutxiago kobratuko. Deskontuak ez dira batzen, handiena ezartzen da.

- **FAMILIA UGARIA:** %15: Eskabide orrian jarri + Txartelaren kopia aurkeztu
- **GAZTE TXARTELA:** 10%. Eskabide orrian jarri + Txartelaren kopia aurkeztu
- **Gorlizen erroldatutako 15-25 URTE BITARTEKOAK (dagokion urtean indarrean):** 50%
- **Gorlizen erroldatutako 65 URTETIK GORAKOEI:** 10%
- **Gorlizen erroldatutako PENTSIODUN EZGAITUEI:** 10%
- **Gorlizen erroldatutako DBE-RGI jasotzailea:** %50. Ziurtagiria aurkeztu hiruhileko bakoitzaren lehen 7 egunetan.
- **Gorlizen erroldatutako LANGABETUAK:** 50%. Deskontua aplikatu ahal izateko, "Inskripzio aldien ziurtagiria" aurkeztu hiruhileko bakoitzaren lehen 7 egunetan (adi hiruhilekoen hasiera datari)

AISIALDIA ETA KULTURA IKASTAROAK 2020-2021

Aurrez aurre egitea aurreikusten da, Covid 19k ezarritako protokoloarekin.
Baldintzak aldatuz gero, ikastaroko ikasleei jakinaraziko zaie.

HELDUENTZAKO IKASTAROAK

ANTZERKIA

Edukiak	Sorkuntza eszenikoa
Eguna, Ordua	Asteazken edo/eta Osteguna (2 egun / 4 ordu) 19:30 – 21:30
Prezioa (3hil.)	50,00€ (*): 45,00€

ESKULANAK

Edukiak	Apainketa, piezen berriztatzea,...
Eguna, Ordua	Astelehena 17:00 - 19:00
Prezioa (3hil.)	50,00 € (*): 45,00 €

GRAFOPSIKOLOGIA

Edukiak	Idazketaren bitartez norbera eta gizakia bera ezagutzea
Eguna / Ordua	Asteazkena 17:30 - 19:30
Prezioa (3 hil.)	71,50 € (*): 65,00 €

JOSKINTZA

Edukiak	Joskintza orokorrean
Eguna / Ordua	Asteazkena 10:00 - 12:30
Prezioa (3 hil.)	62,00 € (*): 56,00 €

PANDERO

Edukiak	Musika tresna (panderoa behar da)
Eguna / Ordua	Astelehena 20:00-21:00
Prezioa (3 hil.)	79,00 € (*): 72,00 €

PINTURA

Edukiak	Ikatz-marrazki, oleo eta akuarelen teknikak
Eguna / Ordua	Astelehena-asteazkena edo asteartea-osteguna 10:00-12:00
Prezioa (3 hil.)	72,00 € (*): 64,00 €

TRIKITIXA

Edukiak	Musika tresna (ez da beharrezkoa trikitixa edukitzea)
Eguna / Ordua	Astelehena 17:00 / 18:00 / 19:00
Prezioa (3 hil.)	99,00 € (*): 90,00 €

UME ETA GAZTEENTZAKO IKASTARO ETA TAILERRAK

ANTZERKIA (12 urtetik gorakoentzat)

Edukiak	Sorkuntza eszenikoa
Eguna / Ordua	Asteartea 18:00 Ordubete astean
Prezioa (3 hil.)	39,00 € (*): 36,00 €

MODELAKETA (5 urtetik gorakoentzat)

Edukiak	Piezak moldatu eta apaindu. 2014arte jaiotakoentzat
Eguna / Ordua	Asteazkena 18:05 - 19:00
Prezioa (3 hil.)	29,00 € (*): 27,00 €

PANDERO

Edukiak	Musika tresna (panderoa behar da)
Eguna / Ordua	Astelehena 20:00-21:00
Prezioa (3 hil.)	79,00 € (*): 72,00 €

PINTURA (5 urtetik gorakoentzat)

Edukiak	Marrazki, pintura eta koloreen nahasketen teknikak. 2014arte jaiotakoak
Eguna / Ordua	Asteazkena 17:00 - 17:55
Prezioa (3 hil.)	29,00 € (*): 27,00 €

TRIKITIXA (8 urtetik gorakoentzat)

Edukiak	Musika tresna (ez da beharrezkoa trikitixa edukitzea)
Eguna / Ordua	Astelehena 17:00 / 18:00 / 19:00
Prezioa (3 hil.)	99,00 € (*): 90,00 €

(*): Erroldatuak: Gorniz / Lemoiz / Plentzia